



Nafarroako Bertsolari Txapelketa
2019

Otsailaren 9tik martxoaren 23ra jokatu da 44. Nafarroako Bertsolari Txapelketa, Tuteran hasita

Aurkezpena

Tuteratik Urdazubira, Iruñetik Lizarrara, Lesakatik Atarrabiara eta Etxarri Aranatzetik Iruñera, Nafarroaren berdeak, horiak eta gorriak zeharkatu dituzte 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketak. Bide bat bertsoarena, euskara Nafarroan barrena barreiatzeko, mila kolore eta mila Nafarroa diren Nafarroa honetan.

30 bertsolarik eman dute izena Nafarroako 44. Bertsolari Txapelketan, eta behin aurre-kanporaketak igarota, **24 izango dira Tuteran hasiko den ibilbidean**. Martxoaren 23ra arte, **zortzi saiotan** ariko dira, beste horrenbeste herrietan, Nafarroako geografia anitzean barrena. **Iruñeko Anaitasuna kiroldegiko finalean** itsasoratuko dira bide horretako urak. Bertsolariekin batera, zazpi epailetako taldeak, hamabost gai-jartzailek eta hamarnaka laguntzailek egingo dute posible egitasmoa.

Urteak joan urteak etorri, Nafarroako euskal kulturaren erreferentzia nagusietakoa bihurtu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Baina ez da bat-bateko lorea. Txapelketa urtean zehar egiten den lan isilaren fruitu da, bertsolaritza transmititzeko alorrean egindako lan eskerdaren ondorio zuzena. Bide horretan, aipatzekoa da *Bertsolaritza Irakaskuntzan* egitasmoa, Nafarroako Bertsozale Elkartek Nafarroako Gobernuaren eta tokian tokiko udal eta mankomunitateen laguntzarekin antolatua, urtero 2.400 ikasle baino gehiagorengana iristen dena, eskola orduetan bertsogintza eta ahozkotasuna landu dezaten. Era berean, ezin ahaztu Bertso Eskolen sarea, herri eta auzoetako transmisiorako gune biziak biltzen dituenak. Azkenik, aisialdiaren eremuan antolatutako egitasmoek osatzen dute transmisioaren alorra.

Txapelketa, beraz, bertsogintzaren eta euskararen aldeko lan horri bultzada emateko aukera ederra da. Nafarroako bertsolariei ikusgarritasuna emanez, bertsogintza sustatu eta gizartean ezagutarazteko aukera emango duen egitasmoa martxan da. Gozatu eta gozarazteko unea iritsi da.

Helburuak

Txapelketa, Nafarroan bertako bertsolaritza sustatzeko modu ezin hobea da. Haren bitartez, ondorengo helburuak erdietsi nahiko lituzke Nafarroako Bertsotale Elkarteak.

- * Zaletasuna dagoen tokietan bertsolaritza sustatzea, eta horren zaletasun handia ez dagoen inguruetan ezagutaraztea. Era berean, bertsogintzaz harago, euskarazko kultur eskaintza herrialde osora zabaltzeko aukera ematen du txapelketak.
- * Nafarroako bertsolariei goi mailako plazak eskaini, eta ezagutzera eman. Txapelketak erakusleho izan behar du herrialdeko bertsolarientzat. Urtero 200 bertso saio inguru egiten dira Nafarroan, baina horietako batzuetan ez dira Nafarroako bertsolariak izaten. Horiei protagonismoa ematea da helburua.
- * Han eta hemen bertsolaritzaren alde lanean ari diren guztiak elkartzea. Txapelketan bakoitzak ahal duena ematen du, eta parte hartzen duten hamarnaka bat lagunen arteko elkarlana ezinbestekoa da urtean zehar gainerako egitasmoak aurrera eramateko. Txapelketak, beraz, Nafarroako bertsolaritzaren ekosistema elikatu eta saretzeko ardura du.
- * Bertsolaritza Nafarroan prestigiozko adierazpide gisa egonkortzea, eta jarduera kultural gisara gizarte osoari ezagutaraztea, euskaldun zein erdaldunei.

Saioak

Urtarrilaren 18 eta 19an jokaturako bi aurre-kanporaketen ostean, hiru fase nagusi izango ditu 2019ko Nafarroako Bertsolari Txapelketak: final-laurdenak, finalaurrekoak eta finala.

Guztira, 30 parte hartzailek eman dute izena txapelketan, eta 24 izango dira Tuteran hasiko den ibilbidean izango direnak: urtarileko aurre-kanporaketetan sei geratu ziren kanpoan. Saio horietan txapelketa batean sekula parte hartu gabeko sei bertsolari eta duela bi urteko txapelketako azken sei sailkatuak aritu ziren. Hamabi bertsolari guztira. Horietatik, Joana Zigandak, Xabat Illarregi, Endika Legarrak, Saats Karasatorrek, Diego Riañok eta Sahats Alemanek egin zuten aurrera.

Lau final-laurden izango ditu txapelketak, 24 bertsolarirekin. Hortik, 18 sailkatuko dira finalaurrekoetarako. Hiru izango dira guztira finalaurrekoak, eta hortik zortzi bertsolari pasako dira finalera. Martxoaren 23an jokaturako da hori, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Puntu gehien eskuratutako bi bertsolariek buruz burukoa jokaturako dute, eta horietako batek jantziko du txapela. Ondorengo koadroan azaltzen dira txapelketako saioak:

Final-laurdena	Final-laurdena	Final-laurdena	Final-laurdena
<i>Otsailak 9, 17:30ean</i>	<i>Otsailak 10, 17:30ean</i>	<i>Otsailak 16, 17:30ean</i>	<i>Otsailak 17, 17:30ean</i>
Musika Eskola (Tutera)	Kultur Etxea (Urdazubi)	Gizarte Bilgunea (Iruñita)	Gazteriaren Etxea (Lizarra)
Aimar Karrika	Julio Soto	Xabi Maia	Eneko Lazkoz
Eneko Fernandez	Saioa Alkaiza	Xabier Terreros	Julen Zelaieta
Alazne Untxalo	Iker Gorosterrazu	Joanes Illarregi	Josu Sanjurjo
Mikel Lasarte	Iban Garro	Patxi Castillo	Amaia Elizagoien
Joana Ziganda	Irati Majuelo	Xabat Illarregi	Sarai Robles
Saats Karasatorre	Sahats Aleman	Endika Legarra	Diego Riaño
<i>GJ: Maialen Belarra</i>	<i>GJ: Ainhoa Larretxea</i>	<i>GJ: Zigor Gartzia "Zian"</i>	<i>GJ: Ander Aranburu</i>

Finalaurrekoa	Finalaurrekoa	Finalaurrekoa
<i>Martxoak 3, 17:30ean</i>	<i>Martxoak 9, 17:30ean</i>	<i>Martxoak 10, 17:30ean</i>
Kultur Etxea (Atarrabia)	Kultur Etxea (Etxarri Aranatz)	Kultur Etxea (Lesaka)
Tuterako irabazlea	Urdazubiko irabazlea	Iruritako irabazlea
Puntuazioz 2.ena	Puntuazioz 1.goa	Lizarrako irabazlea
Puntuazioz 3.ena	Puntuazioz 4.ena	Puntuazioz 5.ena
Puntuazioz 8.ena	Puntuazioz 7.ena	Puntuazioz 6.ena
Puntuazioz 9.ena	Puntuazioz 10.ena	Puntuazioz 11.ena
Puntuazioz 14.ena	Puntuazioz 13.ena	Puntuazioz 12.ena
<i>GJ: Mainer Ansa</i>	<i>GJ: Alaitz Rekondo</i>	<i>GJ: Fernando Anbustegi</i>

Finala
<i>Martxoak 23, 17:00etan</i>
Anaitasuna kiroldegian (Iruñea)
Atarrabiako irabazlea
Etxarri Aranazko irabazlea
Lesakako irabazlea
Puntuazioz 1.goa
Puntuazioz 2.ena
Puntuazioz 3.ena
Puntuazioz 4.ena
Puntuazioz 5.ena
<i>GJ: Alaitz Rekondo eta Fernando Anbustegi</i>

Parte hartzaileak

Bertsolariak

Julio Soto Ezkurdia
 Eneko Lazkoz Martinez
 Aimar Karrika Iribarren
 Xabi Maia Etxeberria
 Xabier Terreros Gartzia
 Eneko Fernandez Maritxalar
 Julen Zelaieta Iriarte
 Saioa Alkaiza Guallar
 Josu Sanjurjo Altzuri
 Iker Gorosterrazu Elizagoien
 Alazne Untxalo Erregerena
 Joanes Illarregi Marzol

Patxi Castillo Graziarena
 Mikel Lasarte Cia
 Amaia Elizagoien Varela
 Iban Garro Alzuri
 Irati Majuelo Itoiz
 Sarai Robles Vitas
 Joana Ziganda Olano
 Xabat Illarregi Marzol
 Endika Legarra Nuin
 Saats Karasatorre Martinez
 Diego Riaño Barroso
 Sahats Aleman Sadaba

Epaileak

Arkaitz Goikoetxea Arriola
 Nerea Bruño Artazkoz
 Mikel Beaumont Arizaleta
 Joseba Beltza Bengoetxea

Jon Abril Olaetxea
 Saioa Mitxelena Irazoki
 Amaia Telletxea Larretxea

Gai-jartzaileak

Alaitz Rekondo Ferrero
Fernando Anbustegi Goñi
Elisa Almandoz Irigoien
Maider Ansa Zugarramurdi
Ander Aranburu Arriola
Pablo Perez Indurain
Ainhoa Iriarte
Kizkitza Mujika

Ainhoa Aranburu Puente
Ainhoa Larretxea Agirre
Miel Mari Elozegi Irurtia "Luze"
Rosita Anakabe Solabarrieta
Miren Bidarte Sota
Maialen Belarra Eneterreaga
Zigor Gartzia Arregi "Zian"

Egin beharreko lanak

Final-laurdenak

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
Kartzelako lana:

Banaka, lehen puntua emanda, bi bertso zortziko txikian.
Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finalaurrekoak

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
Kartzelako lana:

Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.
Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian.

Finala

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian
Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian
Banaka, gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian

Buruz burukoa (lehen bi sailkatuak pasako dira, puntu aldea edozein dela ere)

Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte
Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean
Kartzelako lana:

Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Sarrerak

	6 urtera artekoak	7-16 urtekoak	Bazkideak	Arruntak
Final-laurdenak	Doan	4€	5€	7€
Finalaurrekoak	Doan	6€	7€	11€
Finala	Doan	12€	13€	18€

Saio guztietarako sarrerak aurrez internetez erosten ahalko dira, www.bertsosarrerak.eus atariaren bitartez. Saioetan bertan, leihatilan ere erosi ahal izango dira, 16:00etatik aurrera (15:30etatik aurrera finalaren kasuan). Horrez gain, saioak egingo diren herrietan ere aurre-salmentarako guneak egongo dira. Ondorengoak:

Tutera: Herriko Taberna

Urdazubi: Udaletxea (asteleheneretik ostiralera, 8:00etatik 15:00etara)

Irurita: Fantxike (Elizondo)

Lizarra: Katxetas taberna

Atarrabia: Karrikaluze (asteleheneretik ostiralera, 10:30etatik 14:00etara)

Etxarri Aranatz: Xapatero taberna

Lesaka: Okindegia

Finalerako sarrerak:

Iruñea: Karrikiri

Elizondo: Fantxike

Lesaka: Okindegia

Leitza: Maimur

Etxarri Aranatz: Xapatero

Lizarra: Katxetas

Txapelketaren historia

1936koa jo daiteke historiako lehen Nafarroako Bertsolari Txapelketa: urte hartan Txirritak jantzi zuen txapela Bertsolari Egunean, baina horren aurretik hiru kanporaketa jokatu ziren, horietako bat Elizondon. Juan Felix Iriarte "Berjinanto" nagusitu zen bertan, eta bera da, beraz, Nafarroako lehen txapelduna.

Gerrak eragindako etenaren ostean, 1960an berreskuratu zen txapelketa, Nafarroako Diputazioko Principe de Viana erakundearen eskutik. Sei edizio antolatu zituzten orduan, berriro eten arte.

1979an hasi zen Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aro berria. 1980tik 2004era, gerra aurretik bezalaxe, Ipar Euskal Herriko bertsolariek ere hartu zuten parte bertan. 2011ra arte, urtero jokatu zen txapelketa. Ordutik, bi urtean behin ospatzen da, Bardoak taldekako txapelketarekin txandaka.

1936 Juan Felix Iriarte "Berjinanto"
1937-1959 ez zen jokatu
1960 Andres Narbarte "Xalto"
1961 Bautista Madariaga
1962 Migel Arozamena
1963 Migel Arozamena
1964 Andres Narbarte "Xalto"
1965 ez zen jokatu
1966 Migel Arozamena
1967-1978 ez zen jokatu
1979 Joxe Migel Argiñarena
1980 Mixel Aire "Xalbador II"
1981 Jean Pier Mendiburu
1982 Joxe Migel Argiñarena
1983 Txomin Ezponda
1984 Jean Pier Mendiburu
1985 Mixel Aire "Xalbador II"
1986 Joxe Fermin Argiñarena
1987 Ernest Alkhat
1988 Mixel Aire "Xalbador II"
1989 Ernest Alkhat
1990 Manolo Arozena, Eusebio Fagoaga, Antonio Olano, Joxe Fermin Argiñarena (taldekakoa)

1991 Manolo Arozena
1992 Manolo Arozena
1993 Manolo Arozena
1994 Bittor Elizagoien
1995 Estitxu Arozena
1996 Jexux Arzallus
1997 Xabier Silveira
1998 Estitxu Arozena
1999 Bittor Elizagoien
2000 Amets Arzallus
2001 Amets Arzallus
2002 Amets Arzallus
2003 Amets Arzallus
2004 Xabier Silveira
2005 Xabier Silveira
2006 Xabier Silveira
2007 Xabier Silveira
2008 Julen Zelaieta
2009 Xabier Silveira
2010 Julio Soto
2011 Julio Soto
2013 Xabier Silveira
2015 Julio Soto
2017 Julio Soto

Babesleak eta laguntzaileak

Bi dira Nafarroako Bertsozale Elkartearen urte osoko jardueraren (eta tartean, noski, txapelketaren) babesle nagusiak: Nafarroako Gobernua eta Laboral Kutxa.

Nafarroako Bertsolari Txapelketak, bestalde, baditu bere udal eta erakunde laguntzaileak. Hauxek dira: Iruñeko Udala, Lesakako Udala, Etxarri Aranzko Udala, Atarrabiako Udala, Lizarrako Udala, Baztango Udala, Urdazubiko Udala, Tuterako Udala, Tuterako Argia Ikastola, Nafarroa Oinez 2019, Nafarroako Ikastolen Elkarte, Irunberriko Udala eta Auzotegi.

Webgunea eta sare sozialak

Txapelketaren jarraipena egin ahal izateko www.bertsozale.eus web gunean informazio eguneratua eskainiko da, besteak beste:

- * Parte-hartzaileen biografiak eta argazkiak
- * Saioen gaineko informazioa
- * Puntuazioak eta sailkapen eguneratua
- * Sarrerren gaineko informazioa
- * Saiotako albisteak, argazkiak eta bideo-loturak

Horrez gain, www.bertsoa.eus web gunean saioetako laburpenak ikusten ahalko dira. Hitzetik Hartzera telebista saioak ere jarraipen berezia eginen dio Nafarroako Bertsolari Txapelketari.

Sare sozialen bidez ere, Nafarroako Bertsolari Txapelketa segitzeko aukera izanen da. Facebook-en Nafarroako Bertsozale Elkartearen bitartez eta Twitter-en (@unibertsoa).

Gainera, Nafarroako Bertsozale Elkarteak astero bidaliko ditu saioen kronikak eta argazkiak, hedabideek erabili ditzaten.

Txapelketaren inguruko edozein informazio nahi izanez gero, deitu 948143747 / 669156736 telefonoetara edo idatzi nafarroa@bertsozale.eus helbidera.



Ander Perez Argote - Koordinatzailea